

KONTAKIZUN-SARIKETA

OINARRIAK

1.- Nahi duen orok parte har dezake, adin zein herritartasunari erreparatu gabe.

2.- Hizkuntza (gaztelania edo euskara).

3.- 6 sari egongo dira (3 sari gaztelaniaz eta 3 sari euskaraz):

- * 1. saria: Lehen Hezkuntza (4, 5 eta 6. mailak) 50 €
- * 1. saria: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) 80 €
- * 1. saria: Helduak. 120 €

4.- Egile bakoitzak lan bakarra entregatu ahalko du; originala izango da eta aurretik saritu gabea (ez du marrazkirik izango, ezta argazkirik ere). **ITXITAKO BI GUTUN-AZAL** atxikiko dira (horietako bakoitzaren kanpoaldean **KONTAKIZUNAREN IZENBURUA ETA EZIZENA IDATZI** beharko da).

- **A gutun-azala: kontakizuna (nahitaez zehaztu beharko da zein kategoriatan aurkeztuko den).**

- B gutun-azala: egilearen NANaren kopia, izena, bi abizen, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono-zenbakia; eta, hala dagokionean, egilearen literatura-ibilbidea.

5.- Kontakizunen gutxieneko luzera:

- a) 1 orri (*Lehen Hezkuntza*).
- b) 2 orri (*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*).
- c) 4 orri gutxienez eta 8 orri gehienez (*Helduak*).

DERRIGORREZKOA

- **PAPERA:** DIN A-4 tamaina.

- **ORRIA:** orrialde osoa. Orrialdeak zenbakitu egin beharko dira.

- **KONTAKIZUNAREN IZENBURUA:** aparteko orri batean, ez da sartuko kontakizunean.

- **HIZKIA:** Times New Roman mota eta 12 tamaina (tarte bikoitza, gehienez 1,5).

6.- Lana ebaluatzeko gutxieneko baldintzak: epaimahaiak ez ditu ebaluatuko oinarrietako 1-5 ataletan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten lanak.

7.- Sariketan parte hartzeak esan nahi du oinarri guztiak onartzen direla, baita epaimahaiaren erabakiak eta epaia ere. Epaimahaiak hartutako erabakia apelaezina izango da, eta epaimahaiak saria eman gabe utzi ahalko du.

8.- Udalak saritutako lanen egile-eskubideak izango ditu, baita erreprodukzio- eta erabilera-eskubideak ere.

9.- Epaimahaia hezkuntza eta kulturarekin lotutako pertsonak osatuko dute.

10.- Saritu ez diren lanak epaimahaiak epaia eman eta 15 lanegun pasatutakoan bueltatuko dira.

11.- Lanak aurkezteko epea **2020ko abenduaren 4an** amaituko da, 14:00etan.

*(Era berean, dokumentazioa udal-bulegoen ordutegian entregatu, Oyón/Oiongo Udalera postaz bidali (Plaza Nagusia 5. zk.-01320, Oyón/Oion, Araba) eta webgunearen bitartez (info@ayuntamientodeoyon.com) aurkeztu ahal izango da. Edonola ere, **dokumentazioak udal-bulegoetan egon beharko du 2020ko abenduaren 4an**. Parte-hartzaileen ardura izango da dokumentazioa oinarrietan zehaztutako epearen barruan entregatzea. Jatorrizko dokumentazioa entregatzeko data eta ordu horretatik kanpo jasotzen den dokumentazioa ez da onartuko).*

12.- Egungo pandemiaren bilakaeraren arabera, sarien irabazleei jakinaraziko zaie sari-banaketa noiz egingo den.